

A stylized illustration featuring a blue hand reaching up from the bottom left, a black hand reaching down from the top right, and a blue face with black eyes and a black mouth on the left side. The background is white with some grey shapes.

zerbikas^{en}
3 gidak

**ikasketa eta
zerbitzu solidarioa:
gizarteratzeko
estrategia**

*_ Koordinazioa: Rafael Mendia eta
Víctor Moreno*



aurkibidea

1. Gizarteratzea	4
Gizarte-bazterketaren ondorioak	5
Gizarteratzeko oztopoak	6
Gizarteratzearen eragileak	7
2. Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa (IeZS), gizarteratzeko metodologia gisa	10
IetaZS, gizarteratzeko etorkizun handiko estrategia	10
3. Nola garatu trebetasun psikosozialak IetaZSn bitartez	14
Bizitzarako Trebetasunak: gizarteratzeko tresnak	17
Bizitzarako Trebetasunak eta Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa	17
4. Gizarte-sare inklusiboak sortuz	21
5. Baliabideak	23







IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA (IetaZS)

eredu pedagogiko bat da, edukiak, trebetasunak eta balioak modu praktikoan ikasteko aukera ematen duena, beste pertsoneri lagunduz, betiere.

Abantaila ugari eskaintzen ditu, bai gizarteratze-prozesuak bultzatzeko, bai autoestimua lantzeko; hortaz, metodologia egokia da bazterketa-prozesuak itzultzeko, eta baita horiei aurre hartzeko ere: gizartearen eta hezkuntzaren alorreko esku-hartzeen hartzaile izan ohi diren pertsonen proposamen horien hartzaile izateari uzten diote, eta gizartearen aldaketa-eragile bihurtzen dira.

Protagonista izango dira beste pertsona batzuei zuzendutako ekimen solidarioen antolamenduan eta garapenean, eta, horrela, gizarteratzeko ezinbestekoak dituzten trebetasunak hartzen dituzte, indartu egiten da zerbaiterako balio izatearen sentimendua, eta irudi berri bat eskaintzen zaio gizarteari, aurretik osatuta duenaren bestelakoa.

1 GIZARTERATZEA

Gizarteratzearen bitartez, bizitza ekonomikoan, sozialean, politikoan eta kulturean bete-betean parte hartzeko beharrezkoak diren aukerak eta baliabideak eskaintzen zaizkie pertsona guztiei.

Gizarte inklusibo batek, beraz, Giza Eskubideak bermatzeko mekanismoak eduki eta prestatuko ditu, eta komunitateko kide guztiak herritar aktiboak izan daitezten bultzatuko du.

Pertsona zaurgarritzat hartzen da familia-harremanen eremuan, eremu sozio-ekonomikoan eta/edo politiko-administratiboan ahultasunen bat duena, eta, ondorioz, gizarte-bazterketako prozesu bat eragin dezakeen arrisku-egoeran dagoena.

Gizarte-bazterketa dimentsio askotako prozesua da, eta hainbat arrazoik eragina izaten da. Bazterketan, halaber, hainbat faktore pertsonal eta sozialek parte hartzen dute, eta faktore horiek guztiek elkar eragiten diote; era horretara, gertakari indibidual eta subjektibo bihurtzen da.

Europar Batzordeak txirotasuna eta gizarte-bazterketa aztertu ditu European, eta azterketa horren arabera,

honako hauek dira egoera horiek jasateko arrisku gehien duten pertsonak:

- Epe luzeko langabeak, langabe helduak, lan eze-gonkorrak edo kalitate eskasekoak dituztenak.
- Prestakuntza akademiko eskasekoak, eskolatu gabeak edo eskola gazterik utzitakoak.
- Etorकिनak edo gutxiengo etnikoetako kideak.
- Etxerik gabeak, pilatuta edo etxebizitza kaskarretan bizi direnak.
- Ezintasunen bat dutenak.
- Osasun arazoren bat eta/edo menpekotasunen bat dutenak.
- Mendeko pertsonen arduradun direnak.
- Familia loturarik edo erreferentziazko harremanik ez duten pertsonak.

Zerrenda horretan, beste hainbat talde ere sar daitezke, hala nola, askatasunaz gabetutako pertsonak, eta baita beste hainbat ezaugarri erabakigarri ere, besteak beste, sexu-orientazioa, erlijioa edo adina. Gizarte-bazterketaren kontrako borrokan garrantzi handiena duen faktoreetako bat generoa da; gizartearen egituraren ondorioz, emakumeak gizonezkoak baino zaurgarriagoak dira, zailtasun handiagoak dituztelako lan-merkatuan sartzeko, haiengan uzten direlako zama familiarrak eta genero-indarkeria jasaten dutelako, beste hainbat alderdiren artean.

GIZARTE-BAZTERKETAREN ONDORIOAK

Gizarte-bazterketaren ondorioz, pertsonak gutxiago parte hartu ohi dute gizartearen bizitzan; beren buruari balioa kentzen diote eta pertzepzio negatiboa dute beren buruarekiko, eta hori bera egiten du gizarteak beraiekin ere. Horrez gainera, bazterketak eragin negatiboak izaten ditu pertsonarengan, eragin fisikoak zein psikologikoak.

Gizarte-bazterketa jasaten dutenek alde batera ikusten dute beren burua, ahalmenik gabe eta gutxiagotasun-egoeran. Egoera horrek ondorio psikologikoak ekar ditzake, besteak beste, autoestimu eskasa, gauzak lortzeko motibaziorik eza, antsietatea, isolamendua, nortasunik eza, orientaziorik eza, kanpoko kontrol-lekunea eta depresioa.

Ikuspegi fisikotik, garapen eta bizikidetzeta-sistema komunetan ez parte hartzeak hainbat arazo ekar ditzake, hala nola, desnutrizioa, osasun txarra edo heriotza-tasaren igoera.

Egoera pertsonal horren eraginez, murriztu egiten da pertsona horren enplegarritasuna, eta urritu egiten da, orobat, enplegua bilatzeko, hari eusteko eta aurrera egiteko gaitasuna.



GIZARTERATZEKO OZTOPOAK

Gizarteratzeko oztopoak termino orokorraren baitan biltzen dira: gizartean bete-betean parte hartzeko zailtasunak eta herritar gehienek dituzten onura komunez gozatu ahal izatea eragozten dituzten “traba sozialak”.

Gizarte-oztopo ikusezinak

Zenbait gizarte-oztopok zailtasun erantsi bat dute: ikusezinak dira. Oztopo horiek zerikusia dute baztertutako pertsoneri eta taldeei buruz garai eta testuinguru jakin batean nagusi bihurtzen den diskurtsoarekin, horren arabera, bazterrean gelditzen baitira pertsona horiek.

Gainerako pertsoneri buruz dugun pertzepzioaren eta pertsona horien aurrean dugun jokabidearen oinarri bihurtzen diren (modu gutxi-asko kontzientean) iritzi, balorazio eta pentsamolde multzoa osatzen dute; horiek egituratzen dituzte, azken batean, gure sinesmen-sistema eraikiko duten eta inolako oinarri frogagarririk ez duten aurreiritziak eta estereotipoak.

Oztopo pertsonalak

Bazterketaren bizipenak subjektiboak, dramatikoak eta bakarrak dira, beti. Pertsonak beren egoeren, gaitasunen eta abagunearen arabera esperimentatzen,

bahetzen eta barneratzen dituzte beren zirkunstantziak.

Egoera horren ondorioz, pertsona batek baztertu edo ukatu egin dezake egoera baten larritasuna, harrotasunaren edo lotsaren bitartez, gero eta hondatuago duen irudia eta duintasuna zaintzeko babes-mekanismoa gisa.

Autobazterketaren oztopoak

Muturreko bazterketa egoeran dauden edo etengabeko arriskuan bizi diren zenbait pertsonak bizitzen dituzten esperientzia larrien ondorioz sortu ohi dira.

Egonkortasun psikologikoa hondatzeari edo egonkortasunik, oinarrizko trebetasunik eta gizarteratzearen ibilbideari ekiteko funtsezko baliorik ezari dagozkie, izan ere, jarrera negatiboen errotzea bihurtzen da oztopo nagusia.

Horien bitartez, autobazterketa-zirkulu bat sor daiteke, eta gizarteak, arbuioaren, kanporatzearen eta zigorren bitartez, indartu egin dezake hori, jarrera horiek lagundu egiten baitute pertsona haren egoera sakontzen eta bere bizitza ez kontrolatzearen sentipena sortzen.



GIZARTERATZEAREN ERAGILEAK

Autoestimua

Norberak bere buruari buruz duen balorazioa da autoestimua. Esperientzien eta ingurunearekiko harremanen bitartez osatzen da, eta, azken horretan, bere biziko garrantzia dute pertsona garrantzitsuek.

Autoestimurik gabe ez dugu konfiantzarik ez geure buruan ez besteengan, eta horrek nabarmen mugatzen du ikasteko, lan egiteko eta harremanak izateko gaitasuna.

Bizi-esperientzia negatiboen ondorioak

Krisi-egoeran gaudenean, lana galtzen dugunean, zoritxar ekonomiko bat etortzen zaigunean, gaixotasunari, bakardadeari, bazterketari, haustura mingarri bati, etab. aurre egin behar diogunean, gure kezkek askoz ere oinarrizkoagoak bihurtzen dira, ez dugu geure burua seguru ikusten eta babesa bilatzeko premia sentitzen dugu.

Esperientzia positiboak, autoestimua garatzeko bidea

Beste pertsonen baldintzak edo ingurune jakin baten baldintzak hobetzeko jarduerak egiten ditugunean, garrantzizko ezagutzak eta trebetasunak ikasteaz gainera, gure erreferentziako pertsonen eta jarduera horien zuzeneko onuradunen balorazioa eta onespen positiboa jasotzen ditugu.

Gure bizi-ibilbidea esperientzia positiboen bitartez erakitzen da, eta horrek, pixkana-pixkana, geure buruan eta gainerakoekiko harremanetan konfiantza edukitzeko aukera ematen digu; era horretara, akatsak eta egoera zailak gainditzen ikasten dugu. Esperientzia horiek –nahitaez planifikatuak izan direnak–, halaber, etorkizunerako aukerak imajinatzeko, helmugak jartzeko, hautaketak egiteko eta gure biografia eraikitzeko aukera ematen digute.

Balioetan heztea

Balioak baliozko erreferenteak dira pertsonentzat, eta jokabidearen eta bizitzaren eragileak ere badira. Jokaera eta erabakiak zuzentzen dituzten idealak, interesak, motibazioak eta beharrak biltzen dituzte. Beti daude pertsonen bizitzan eragiten duten balioak, eta ezinbestekoa da horiek ezagutzea, pertsonaren garapenean modu hezitzailean jarduteko.

Pertsona batek ez badu bere burua baloratzen, zaila izango da besteak baloratzea eta elkarrenganako errespetuan oinarritutako harremanak, lankidetzara bideratuak, edukitzea. Pertsoneri erakutsiz gero bai beren burua bai gainerakoak aintzat hartzen, ikuspegi egozentrikoak gaingintzen lagunduko diegu, eta, orobat, lagunduko diegu jarrera eta jokabide kooperatiboak eta altruistak garatzen. Era horretara, parte-hartzean, elkarrenganako errespetuan eta tolerantzian, kooperazioan edo solidaritatean oinarritutako jokabideen alde egingo dugu, eta horiek guztiak oinarritzakoak dira bizikidetzaren demokratikoa eta gizarteratzea lortzeko.

Garrantzizkoa da baztertuta edo baztertzeko arriskuan dagoen talde bat balioetan hezteko proposamen batean, alde batetik, pertsona horientzat esperientzia positiboak sortzea, eta, bestetik, erabaki gero eta kontzientekoak eta autonomoagoak hartzeko ingurune batean garatzeko beharrezkoa den gizarte-babesa ematea.

letaZSk aukera horiek eskaintzen ditu. Taldean, kide guztiekin batera, aztertu, programatu, ebaluatu eta lan egin behar da, taldean negoziatu eta banatu behar dira lanak, taldean hartu behar dira konpromisoak eta erabaki egokienak, taldean gaingintu behar dira bidean sortutako zailtasunak...

Era horretako proiektu bat osatzen duten faseak aurrera eramateko trebetasunak landu behar dira, eta erreferentziatzeko pertsona da ikaskuntza horietan lagun dezakeena, esperientzia praktikoa batek, hala nola, laguntzeak, eskaintzen duen esparru ohiz kanpokoaz baliatuta.

Bizitzarako trebetasunak

Pertsoneri alderdi psikosozialetik trebeak izaten lagunduko dien prozesuak sortzea da gizarteratze-faktore-etako bat, hau da, pertsona horiek gai izan daitezten beren buruarekin, gainerako pertsonekin eta beren ingurune soziokulturalean modu positiboan moldatzeko.

Trebetasun psikosozialak, eta, beraz, MOEk proposatzen duen ereduak (1993), ezinbesteko osagaia dira gaitasun psikosoziala garatu ahal izateko. Trebetasun horiek modu egokian lantzen dituen edonork indartuko du bere burua, eta garrantzizko urratsa egingo du bere autonomia pertsonala garatzeko bidean.



2 IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA (IetaZS), GIZARTERATZEKO METODOLOGIA GISA

IetaZS hezkuntza-eredu bat da, solidaritatean oinarritua. Gizalegezko balioak eta kultura ekintzailea bultzatzen ditu, eta herritarren parte-hartze arduratsuen alde egiten du, komunitatearen premiak kontuan hartuta, betiere.

Neskak, mutilak, nerabeak, gazteak edo beste talde batzuk esperientzia solidarioen protagonista bihurtzea proposatzen du, beren garapen pertsonalaren alde egiteko: zerbitzu komunitario baten esperientziatik abiatuta, beren gizarteratzeko ezagutzak, trebetasunak eta funtsezko balioak ikasten dituzte.

IetaZS esperientziak garatzen dituzten pertsonak komunitatea hobetzeko jardueren antolakuntzaren, garapenaren eta ebaluazioaren esperientziaren bitartez bereganatzen dituzte ikaskuntza horiek.

Era horretara, talde horri egokituko zaio jardueraren protagonismoa, eta talde horretako hezkuntza-erreferenteak izango dira esperientzia horren bitartez egin nahi diren ikaskuntzak azpimarratzearen eta be-

rreskuratzearen arduradunak; era horretara, kasuaren arabera, oinarrizko ikaskuntzez, enplegagarritasunerako premiazko trebetasunez, jabetzea bultzatuko da, edo, bestela, zenbait balioez, hala nola, solidaritateaz, erantzukizunaz edo jarraipenaz, jabetzea.

IetaZS, GIZARTERATZEKO ETORKIZUN HANDIKO ESTRATEGIA

IetaZSk hainbat aukera eskaintzen ditu baztertuta dauden edo baztertzeko arriskuan dauden pertsonekin eta taldeekin lan egiteko.

Oro har, tradizioz esku-hartzeen hartzaile izan diren taldeek gizar-tean parte har dezaten bultzatuko da; era horretara, eragile aktibo bihurtzen dira, beren aldaketa pertsonalaren protagonista izaten dira, eta baita beren ingurunearen hobekuntzaren protagonista ere.

Parte-hartze horren bitartez, estigmatizatu gabeko ikuspegia eskainiko zaio gizar-teari, eta, horrez gainera, duen balioa aitortuko zaio pertsonari, eta gizar-tean eta lan-munduan txertatzeko balio eta trebetasun psikosozialak garatuko dira.



ESPETXEKO HELDUEN ESKOLA

Hezkuntza Ertaineko Eskola, 5. zk., Espetxe Unitateak. 2., 38. eta 27. zk. Sierra Chica, Buenos Aires.

Sarean lan egiten da, gizarte-garapen iraunkorrekotarako ekimenetan eta ekintza solidarioetan, hala nola, material didaktikoak eta ikasketa-unitateak braillean egiteko tailerra (Beste batzuk: Antzerkia, Plastikoa birziklatzea, FM irrati hezigarria eta Azalezatzeko tailerra).

Proiektuaren helburuak:

- Jarduera solidarioen garapena bultzatzea, erakundea "harriztatik kanpo" ateratzeko.
- Ikasteko modu berriak eratzea, bestelako testuinguru baten baitan.
- Presoen, irakasleen eta, oro har, komunitatearen arteko gizarte-loturak sendotzea.

Proposatzen den gogoetak Proiektuaren garapenean Espetxe Eskolako ikasleengan zer balio lantzen diren azpimarratzen du:

- Hezi, lan egin, solidaritatea, elkarbizitza, autoestimua eta jakabekuntza.
- Zentzua hartzen dute jakintzaren hainbat alorri –hala nola, hizkuntza eta literatura, matematika, fisika eta kimika, ingelesa, natur zientziak, etab.– lotutako ezagutzek.
- Konpromisoa, elkarbizitza, parte-hartzea, autoestimua, txertatzea, gizarteratzea, erantzukizuna, beste pertsonenganako interesa, hazkuntza pertsonala.

MADRILGO TOMILLO FUNDAZIOKO HLPPEAKO IKASLEAK

HLPPEtako (Hasierako Lanbide Prestakuntzarako Programak) ikasle gazteek zerbitzu solidarioko ekimen batean parte hartzen dute, eta auzoko gizarte-zentroko pertsona helduei erabiltzaile mailako informatikako prestakuntza ematen diete.

HLPPEtako hezkuntza-programaren zati gisa, eta programa horren osagai gisa baloratuta, komunitateari zerbitzu bat emateko aukera ematen zaie gazteei, aurreikusitako boluntario-moduluen bitartez.

Proiektuaren asmoa garbia da, hain zuzen ere, gazteei zerbitzu komunitarioko erabaki bat hartzeko aukera ematea, beren oinarrizko eta lanbide mailako ezagutzak eta gaitasunak laguntzeko erabiltzea –zerbitzu baten bitartez sozializatuz–, harreman-ikaskuntzak garatzea, eta autoestimua eta jabetasuna sendotzea, etorkizunean bizitza pertsonalean, profesionalean eta sozialean sortzen zaizkion erronkei aurre egiteko.

Gazteek oso modu positiboan baloratzen dute esperientzia. Egoera konpontzeko gai direla ikusi dute. Harreman-gaitasunak garatu dituzte pertsona zaharragoekin, eta, horrela, belaunaldien arteko hurbilketa bultzatu dute.

Bai komunitatearentzat, bai komunitateko pertsona jakinentzat baliagarriak izan direla sentitu dute. Beren autoestimua handitu egin dela sentitu dute, beste pertsona batzuei erakusteko zeregin zailari aurre egin ahal izan baitiote.

IKASKETA-TALDE KOMUNITARIOAK, BUENOS AIRESEN. SES FUNDAZIOA

Oinarrizko Bigarren Hezkuntzako eta maila Polimodaleko sektore ahulenetako gazteei eskolan aurrera egiten eta bertan gelditzen laguntzea da programaren helburu nagusia.

Programako gazteek SES Fundazioko irakasle, hezkuntza-orientatzaile eta talde teknikoak laguntza dute ekimen guztietan, eta horiek dira, aldi berean, ekimen guztiak begiratu eta eskaera zehatzei erantzuten dietenak.

Laburbilduz, Programak helburu hauek ditu:

- Ikasketa Talde Komunitarioetako (GCE) eta Gazteak Bidean-eko (JEC) gazteen hezkuntza-ibilbideak sendotzea.
- Gazteek lan komunitarioaren kontzientzia hartzea.
- Aukera gutxien dituzten gazteen egoera sozialari, ekonomikoari eta hezkuntzaren alorrekoari heltzea.
- Gizarte-zaingarritasun egoeran dauden gazteekin lan egiten duten erakunde komunitarioak sendotzea, eta, horretarako, talde-lanean oinarritutako estrategiak sortzea, gizarteratzea, antolamendua eta ikaskuntza bultzatzeko.



3

NOLA GARATU TREBETASUN PSIKOSOSIALAK IetaZSn BITARTEZ

Eskolan curriculum akademikoa da erreferente nagusia; gizarteratzeko praktketan, aldiz, Bizitzarako Trebetasunak izango dira gure lana bideratuko dutenak.

Benetan zaila izango litzateke IetaZS esperientzia baten garapenean trebetasun psikosozialik ez ikastea. Hala ere, ikaskuntza horiek ez dute bat-batekoak izan behar, helburu baten arabera antolatuak baizik. Beraz, ezinbestekoa da ikaskuntza horiek erreferentziazko pertsonen bitartez egituratzea (irakasleak edo gizarte-hezkuntzako eragileak), modu esplizituan ikas daitezzen.

IetaZS proiektu bat hainbat fasetan gauzatzen da. Hona hemen fase bakoitzean Bizitzarako Trebetasunak nola gara daitezkeen azaltzeko adibide bat:

Errealitatearen azterketa

IetaZS proiektu baten proposamenaren aurretikoak:

Aurretik, testuingurua aztertu, eta zer egoera hobe daitezkeen identifikatzen da, kontuan hartuta zer pertsona edo talderekin esku hartuko den. Taldeko

kide bakoitzaren eta talde osoaren indarguneak aztertzen dira, egin daitezkeen proposamenetan pertsonen zein taldeak hazteko zer aukera dituzten identifikatzeko helburuarekin.

IetaZS proiektuaren hasieran:

Gure hiriaren, auzoaren edo herriaren behaketa ariketa bat proposa dezake; era horretara, pentsamendu kritikoa eta enpatia bultzatzen ditu, hobe daitezkeen egoeren azterketetatik abiatuta. Behaketa-fokua ere zabal daiteke, beste herrialde eta kultura batzuetako premietara hurbiltzeko.

Saiatzen da errealitatearen azterketa hori eta taldetik sortzen diren ekimenen azterketa hori aurrera egiteko aukeretara egokitzen.

Pertsoneri eta taldeari laguntzen die prozesuan zehar.

Proiektuaren plangintza

IetaZS esperientzia bat antolatzeko orduan, erabilgarria izango litzateke egin nahi dugun zerbitzuaren helburu izango diren taldeen egoerak ezagutzea; era horretara, enpatiazko sentimendu bat garatu ahal izango da, hurbiltasunetik abiatuta, eta sentimendu horrek, halaber, zentzu handiagoa emango dio gure jarduerari eta premiazkoago bihurtuko du.

Zer esperientzia egin erabakitzeko, garrantzizkoa da gure indarguneak eta mugak ezagutzea (geure burua ezagutzea), taldearen aukeren arabera izango den ekintza, zehatza eta egingarria, gauzatu ahal izateko eta frustrazio-egoerak saihesteko.

Erreferentziazko irudiek garrantzizko zeregina dute orain ere, haiek baitira esperientzia bat edo bestea hautatzeko (erabakiak hartzea) aukerak, aldeko eta kontrako alderdiak (pentsamendu kritikoa), balorazten lagunduko dutenak.

Sormenezko pentsamenduak ere garrantzizko balioa izan dezake fase honetan; esperientzia sail baten aurkezpenetik abiatuta lan egin daiteke, eta ekimenaren originaltasuna osagai motibatzailea bihurtur daiteke, eta baita proiektua zabaltzeko lagungarria ere.

Proiektuaren betearazpena

Taldeko edozein prozesutan sortu daitezke desadostasunak, eta baita gertaera bera interpretatzeko hainbat modu ere. Krisi garai horiek aukera ezin hobeak izan litezke asertibitatea, emozioen eta sentimenduen erabilera eta arazoaren eta gatazken konponbidea lantzeko.

Taldea bera gainditzen duten eta beste errealitate batzuekin eta bestelako baliabideekin harremanetan

jarriko duten esperientziei buruz ari gara; horretarako, ezinbestekoa da pertsonen arteko harremanak lantzea.

Beste edozein proiektutan gertatzen den bezala, epeek, ezustekoek eta xehetasun txikiek edonor jar dezakete proban, eta tentsioak eta estresa gobernatzen ikasteko aitzakia perfektua izan daitezke.

Ebaluazioa

Fase honetan, jarduera taldean ebaluatzeaz gainera, pertsona eragileak itzuli egiten ditu ikasitako trebetasunak. Ebaluazioa aukera berri bat izan daiteke hainbat trebetasun psikosozial lantzeko, gatazka-egoera jakin bat nola konpondu den berrikusi edo lortutako helburuen azterketa kritikoa bultzatu baitaiteke.

Amaiera-festa

Festa txikien helburua izaten da ezagutzak sendotzea eta jarraitzeko nahia piztea.

BIZITZARAKO TREBETASUNAK*

Ereduak pertsonen dimentsio emozionalak, kognitiboak eta sozialak garatzea proposatzen du, eta, horretarako, zehazki 10 Trebetasun hauek landuko dira:

1. Norbere buruaren ezagutza: norberak bere izatea, izaera, indarguneak, aukerak, jarrerak, balioak, gustuak eta disgustuak hobeto ezagutzea.
2. Enpatia: beste pertsonaren "azalean" jartzea, hura hobeto ulertzeko eta, egoeraren arabera, modu solidarioan erantzuteko.
3. Komunikazio asertiboa: argi agertzea, testuinguruaren eta kulturaren arabera modu egokian, zer sentitzen, pentsatzen edo behar den.
4. Pertsonen arteko harremanak: pertsonen artean garrantzizko harremanak finkatzea eta horiei eustea, eta norberaren hazkunderari kalte egiten diotenekin amaitzeko gai izatea.
5. Erabakiak hartzea: hainbat irtenbide ebaluatzea, kon-tuan hartuta beharrak, irizpideak eta erabakiek norberaren bizitzan zein besteen bizitzan izan ditzaketen ondorioak.
6. Arazoen eta gatazken konponbidea: eguneroko bizitzako arazoak eta gatazkek malgutasunez eta sormenez erabiltzea, horietan pertsonak eta gizarteak hazteko aukerak identifikatuz.
7. Pentsamendu sortzailea: arrazoiak eta "pasioak" baliatu (emozioak, sentimenduak, intuizioa, fantasiak eta instintuak, besteak beste) gauzak hainbat ikuspegitatik ikusi ahal izateko eta gauzak originaltasunez asmatzeko, sortzeko eta abian jartzeko.
8. Pentsamendu kritikoa: esperientziak eta informazioa objektibotasunez aztertzea, eta errealitateari buruzko norbere ondorioetara iristeko gai izatea. Pertsona kritikoa galdetu eta ikertu egiten du, eta ez ditu gauzak sineskortasunez onartzen.
9. Emozioen eta sentimenduen erabilera: emozioen eta sentimenduen munduan nabigatzen ikastea proposatzen du, eta "sintonia" handiagoa lortzen du norberaren eta beste pertsonen afektibitatearen munduen artean. Horrek aberastu egiten ditu, bai bizitza pertsonala, bai pertsonen arteko harremanak.
10. Tentsioen eta estresaren erabilera: eguneroko bizitzan, tentsio- eta estres-iturriak modu egokian identifikatzea, horiek nola agertzen diren jakitea eta horiek modu osasungarrian ezabatzeko edo baliogabetzeko moduak bilatzea.

Ikus daitekeenez, proposatutako trebetasun psikosozial horiek hezkuntzako esku-hartzeen egunerokotasuna osatzen dute. Arretaz aztertzen baditugu, berehala ohartuko gara horietako batzuk ikastea ezinbestekoa dela beste batzuk garatu ahal izateko.

* Mantilla, L. eta Chahín, I. *Habilidades para la Vida. Manual para aprenderlas y enseñarlas*. EDEX, 2006.

BIZITZARAKO TREBETASUNAK: GIZARTERATZEKO TRESNAK

Bizitzarako Trebetasunek garrantzizko baliabideak emango dizkigute:

- Gizarte-bazterketaren faktore pertsonal eta familiarrei aurre hartzeko. Neskak, mutilak, nerabeak eta helduak 10 trebetasun psikosozialetan gaituz gero, indartu egiten da beren autonomia pertsonala, eta baita gizarte-bizitzan modu positiboan parte hartzeko gaitasuna ere.
- Gazteen eta helduen laneratzeko: pentsamendu kritikoa, sormenezko pentsamendua, erabakiak hartzea, arazoak eta gatazkak konpontzea..., zuzenean enplegagarritasunarekin lotuta dauden trebetasunak dira, eta funtsezko osagaiak dira talde-lana garatzeko edo irtenbide berritzaileak bilatzeko.
- Gizarte-hesiak eraisteko. Hainbat trebetasun, norbere buruaren ezagutza eta enpatia esaterako, balio solidarioak garatu ahal izateko eta bidezko gizarte bat eraikitzeko oinarriak izan daitezke.

BIZITZARAKO TREBETASUNAK ETA IKASKETA ETA ZERBITZU SOLIDARIOA

Trebetasun psikosozialak baliozko tresnak dira gure bizitzan zehar topatuko ditugun erronkei aurre egiteko, eta horiek ikasteko, modu praktikoan erabili behar dira.

IetaZS oso estrategia erabilgarria da pertsonak Bizitzarako Trebetasunen paradigmaren barruan gaitzeko, esperientzian oinarritua baita.

Era berean, Bizitzarako Trebetasunak garatzea bilatzen duenez, ikaskuntza aberatsagoak eskaini ditzake, eta baita kalitate handiagoa eman ere IetaZS proiektuei.



SAIO PROGRAMA: ESPERIENTZIAK PARTEKATUZ

“Autonomia gazteentzat” pisuko gazte batek bertan bizi diren beste gazteekin gatazkak konpontzeko eta bizitzarako trebetasunak hobetzeko bizi-esperientziak partekatzen ditu.

Egindako zerbitzuak:

- Bizipen normalizatuak bultzatzea, gazteen bizikidetzan sortzen diren egoera zailen aurrean.
- Neska-mutil horien bizi-ibilbideen aldaketa-prozesuak sortzea, helaraztea eta horietan laguntzea.

Lortutako ikaskuntzak:

I. Proiektuaren prestakuntzan

Egoerak aztertzea eta egiaztatzea; bizikidetzaren alorreko helburuak garatzeko eta bizi-ibilbideak hobetzeko gaitasuna; beharrak baloratzeko gaitasuna hobetzea; hobekuntzak ebaluatzeko gaitasuna; proposamenak egiteko gaitasuna hobetzea.

II. Proiektuaren garapenean

Egoerak itzulgarriak direla barneratzea; norbanakoaren balioaren eta talde-kohesioaren sentimenduen kontzientzia hartzea; aztertze, alderatzeko eta proposamenak egiteko gaitasuna hobetzea; aurrerakuntzak eta behar berriak baloratzeko gaitasuna izatea; erabakiak hartzeko gaitasuna; aldaketarako trebetasunak garatzea; frustrazioari erresistentzia handiagoa izatea.

III. Proiektua amaitzean

Emaitzak ebaluatzeko gaitasuna; lorpenak eta norberaren balioak onartzeko gaitasuna; akatsak onartzeko eta aldaketak proposatzeko gaitasuna.

PEÑASCAL FUNDAZIOA: HLPPKO IKASLEEK ELIKAGAIEN ETA JOSTAILUEN BILKETA ANTOLATU DUTE

Elikagaien Bankura eta Bilboko gizarte jantoki batera bisitan joan ondoren, elikagaiak biltzeko kanpaina bat egin zen. Jostailuak Fundazio horretako zurgin-tailer batean konpondu ziren, eta, ondoren, sahararren aldeko elkarteetara eram ziren.

Egindako zerbitzuak:

- Elikagaiak bildu ziren, premia handiena zuten pertsonentzat.
- Jostailuak neska-mutil sahararren esku jarri ziren.

Lortutako ikaskuntzak:

I. Proiektuaren prestakuntzan

Oinarrizko gaitasunekin zerikusia duten eskolako hainbat ikaskuntza. Gure Ongizate Estatuarekin zerikusia duten ezagutzak: larrialdiko laguntzak, oinarrizko errenta...

II. Proiektuaren garapenean

- Talde-lana eta trebetasunen garapena: pentsamendu kritikoa, sortzailea, erabakiak hartzea eta enpatia.
- Bilbon pobrezia-egoera zein den eta baliabiderik gabeko pertsonak zer egoeratan dauden ezagutzea.
- Zurgintzari buruzko edukiak lantzea ikasgelan.

III. Proiektuaren amaieran

- Gure inguruan eta beste herrialde batzuetan baliabiderik ez duten pertsonen egoeraz eta sufrimenduaz jabetzea.
- Antolatutako jarduera bat hasi eta bukatzeko gaitasunaz jabetzea.
- Egindako lanak sortzen duen atsegin-sentimendua.
- Gizartearentzat baliagarria izatearen sentimendua.



AURREMONITOREEN ESPERIENTZIA CÁRITASEN, GIZARTE-ESKOLAKO LAGUNTZA-PROGRAMAN

Aurrenerabe eta nerabe egiten ari diren haurrek aukera dute Cáritas Infancia delakoaren proiektuetan (PASES: gizarte-eskolan laguntzeko proiektuak) aurremonitore gisa funtzio bat betetzeko, boluntario moduan; era horretara, begiraleei hainbat lanetan laguntzen zaie, txikienei txandatan, hala nola, merienda prestatzen, txikienei begiralearekin batera laguntzea etxeko lanak egiten, denbora libreko jarduerak dinamizatzen, festak eta denbora libreko jarduerak antolatzen, etab.

Lan horiek elkarrekin ebaluatzen dira.

Aurretik, hitzaldi txiki bat ematen zaie, aurremonitore izatea zer den azaltzeko.

Ikaskuntza:

Oinarrizko trebetasunak ikasten dituzte, jarduerak antolatzen eta horietarako informazioa bilatzen ikasten dute, eskolako oinarrizko ikasgaietan birziklatzen, egoera zailak konpontzen, PASEn bertan txikitik ikasitako balioak helarazten, aurretik beraiekin egindakoa aintzat hartzen, zailtasunaren barruan bizipen pertsonalen aurrean irtenbideak eta motibazioak bilatzen.

GURUTZE GORRIKO GAZTEAK BIZIKIDETZAREN ALDE

Gurutze Gorriko gazte boluntarioek galdeketa labur batean lan egin zuten, ikasleekin batera, lagun-taldeetako eta hezkuntza-zentroetako elkarbizitzari buruzko balioen, jarren eta jokabideen alorreko kezka agertzeko helburuarekin.

Egindako zerbitzuak:

- Ikasleak nerabetsunaren esperientzia negatiboak erlatibizatzearen garrantziaz jabetzea, sufrimendu emozionala gutxitzeko eta pertsona ahulenak babesteko helburuarekin.
- Helduak, sentimenduen hizkuntzaren bitartez –unibertsala eta atemporal baita–, komunikazio irekia izateko eta nerabearen lekuan jartzeko sentsibilizatzea; era horretara, murriztu egingo dira belaunaldien arteko oztopoak.

Lortutako ikaskuntzak:

I. Proiektuaren plangintzan

Gurutze Gorriko gazte boluntarioek ahalegina egin behar izan zuten nerabe izatea nolakoa zen gogoratzeko, adin horren berezko bizipen negatiboak dagokionez bereziki. Era horretara, ikasleekin enpatizatu eta haiek gaur egun duten izaeran sakondu ahal izan dute (beren buruaren ezagutza).

Pentsamendu sortzailearen bitartez, eta erabakiak hartuta, definitu egin behar izan dute ikastetxeetako zuzendariei ekimenen berri nola eman, eta baita galdetegiak eta ondorioak helduen taldeari nola jakinarazi ere.

II. Proiektuaren garapenean

Jarduera egiteko ikastetxeetako zuzendariekin jarri dira harremanetan, prestalanetarako, eta ikasleekin berekin ere egon dira, galdetegiak betetzeko (pertsonek arteko harremanak).

Kasu batzuetan, ikasleek beren kezken berri eman diete, batez ere “segurtasunik ezaren betikotasun” sentipenari dagokionez. Gurutze Gorriko boluntarioekin aurretik egindako lanari esker, emozioak kudeatu ahal izan dituzte, eta arindu egin dituzte kezka horiek.

Eskutitzak, galdetegiak eta dibulgazio-kartelak informatika bidez diseinatzeko lanak egin behar izan dituzte, eta baita amaierako txostenean estatistikak egiteko eta ondorioak bilatzeko ere.

III. Proiektuaren amaieran

Ikasleen sufrimendu emozionalaren prebentzioa garrantzizkoa den ustea sendotu egin da boluntarioengan. Horregatik, azpimarratuko dute taldeko, familiarako, komunitateko, etab. bizikidetzak duen garrantzia, eta modu kontzientean goan helaraziko dute prebentzio emozionala (asertibitatea).

4 GIZARTE-SARE INKLUSIBOAK SORTUZ

Gizarteratzearen ikuspegitik, letaZS programek aukera ematen dute, alde batetik, zailtasunak dituzten pertsonei beren egoera gainditzen lagunduko dieten gizarte-sareak ezartzeko, eta, beste alde batetik, etorkizunari modu proaktiboan aurre egiteko baliabide pertsonalak eta taldeari dagozkionak aktibatzen.


letaZSk esparru integratzaile bat eskaintzen du, hainbat eragile eta jakintza profesional gizarteratzearen zereginean txertatzeko. Lan hori proiektu bakar batean biltzea bultzatzen du, eta proiektu hori, aldi berean, banakakoa zein kolektiboa izan daiteke; era


horretara, aberastu egiten da lana, eta esku-hartze sozialerako baliabideak eta egiturak eskaintzen ditu.

Oinarria komunitatean duten proiektuen bitartez, ondo aztertuko dira dauden laguntzak eta baliabideak bultzatzen, gizabanakoen eta taldeen gaitasunak garatzen, eta, gabezia edo premia-egoeretan, haiek osatu edo ordeztuko dituzten gizarte-sareetako pertsonen arteko harremanen eta taldeko harremanen egiturak eta funtzionamendua.

Esku-hartze Komunitarioaren ezaugarriak dira, besteak beste, pertsonen, familien eta komunitate baten taldeen baliabide "naturalez" baliatzea eta gizarte-arazoak konpontzeko eta horiei aurre hartzeko prozesuetan parte hartzea. Esku-hartze horrek zentzua du, baldin eta sarean lan egiten bada, bai gizabanakoaren-familiaren ikuspegitik, bai taldearen eta komunitatearen ikuspegitik, komunitate jakin batean.

letaZSk komunitatearen testuinguruan garatzen ditu proiektuak; era horretara, taldeen, erakundeen zein gizabanakoen arteko harremanen premia du, eta horiek bultzatzen ditu, garatzeko orduan. Era horretara, esku hartzen duen gizarte-kapitala handitu egiten da, erraztu egiten da baliabideen osagarritasuna, eta gero eta jende gehiagok, talde gehiagok eta erakunde gehiagok aitortzen dute gizarteratze-prozesuan den pertsonaren balioa eta gaitasuna.





5

BALIABIDEAK

IKASKUNTZARI ETA ZERBITZU SOLIDARIOARI BURUZKO LIBURUAK

Martín, X. eta Rubio, L. (2007). *Experiències d'aprenentatge servei*. Bartzelona. Octaedro argitaletxea.

Martín, X eta Rubio, L. (2010). *Prácticas de ciudadanía. Diez experiencias de aprendizaje Servicio*. Bartzelona. Octaedro argitaletxea.

Martínez, M. (2008). *Aprendizaje servicio y responsabilidad social de las universidades*. Bartzelona. Octaedro argitaletxea.

Puig, J. M.; Batlle, R.; Bosch, C. eta Palos, J. (2006). *Aprendizaje servicio. Educar para la ciudadanía*. Bartzelona. Octaedro argitaletxea.

Tapia, M. N. (2006). *Aprendizaje y servicio solidario*. Buenos Aires. Ciudad Nueva argitaletxea.

GIZARTEATZEAREN GARAPENARI BURUZKO LIBURUAK

Bilbao, A.; Erriondo, L.; Garagorri, X.; Lagarreta, P.M. (2006). *Derrigorrezko eskolaldirako Euskal curriculum*. Oinarrizko txostena. Vitoria-Gasteiz. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritza.

Eurydice. (2002). *Las competencias clave. Un concepto en expansión dentro de la educación general obligatoria*. Madril. Eurydice.

Fundación Cruz Roja Española (2007). *Informe anual sobre la vulnerabilidad social, 2006*. Madril. Fundación Cruz Roja Española.

Fundación Luis Vives (2007). *Claves sobre la pobreza y la exclusión social en España*. Madril. Fundación Luis Vives.

Fundación SES (2009). *Servicio Juvenil Integral. Experiencias de compromiso y Aprendizaje*. Buenos Aires. Fundación SES.

Garma, A. eta Elexpuru, I. (1989). *El autoconcepto en el aula. Recursos para el profesorado*. Bartzelona. Edebé argitaletxea.

López-Aranguren, L.M. (2007). *¿Por qué hacemos lo que hacemos? Una propuesta de debate para el tercer sector*. Madril. Fundación Tomillo.

Mantilla L. eta Chahín I. (2006). *Habilidades para la vida. Manual para aprenderlas y enseñarlas*. Bilbao. EDEX

Morquecho J. (1999). *Intervención comunitaria en Euskadi. Acercamiento a la acción social sobre la exclusión*. Vitoria-Gasteiz. Ararteko.

GIDAK

Rubio, L. (2008). *Zerbikas Gida 0: Ikasketa eta zerbitzu solidarioen sake-lako gida*. Bilbao. Zerbikas Fundazioa.

Puig, J. M.; Martín X. (2007). Gida 1: Nola jarri abian ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu bat. Bilbao Zerbikas Fundazioa.

Hernández, C.; Larrauri, J.; Mendia, R. (2009). *Gida 2: Ikasketa eta zerbitzu solidarioa eta oinarrizko gaitasunak garatzea*. Zerbikas Fundazioa. Bilbao. Zerbikas Fundazioa.

Mendia, R; Moreno, V. (2010). *Gida 3: Ikasketa eta Zerbitzu Solidarioa, gizarteratzeko estrategia*. Bilbao. Zerbikas Fundazioa

Puig J. M. (2010). *Com fer APS en els Centres Educatius?* Bartzelona. Centre Promotor d'Aprenentatge Servei.

Puig J. M. (2010). *Com fer APS en les Entitats Socials?* Bartzelona. Centre Promotor d'Aprenentatge Servei.

WEB ORRIAK

Zerbikas: www.zerbikas.es (País Vasco)

Centre Promotor d'Aprenentatge Servei: www.aprenentatgeservei.org (Cataluña)

CLAYSS (Centro Latinoamericano de Aprendizaje y Servicio Solidario): www.clayss.org (Argentina)

National Youth Leadership Council: www.nylc.org (U.S.A.)

Learn and Serve America's: www.servicelearning.org (U.S.A.)

© Edizio honi dagokiona: Zerbikas Fundazioa

ISBN: 978-84-9726-542-3 • D.L.: BI-3248-2010

Eskubide guztiak gordeta

Diseinua: Álvaro Pérez Benavente / www.estudionuvola.es

Gida hau ZERBIKAS Fundazioak 2009an eta 2010ean sustatutako *Ikasketari eta Gizarte Zerbitzuari zein Gizarteratzeari buruzko Mintegiko* lanak oinarri hartuta egin da, eta honako hauek parte hartu dute:

Rafael Mendía eta Víctor Moreno (Zerbikas Fundazioa); Begoña Martínez (Euskal Herriko Unibertsitatea); Itziar Elexpuru (Deustuko Unibertsitatea); Manuela Abeijón (EDEX); José Antonio Fernández eta Mainer González (Gurutze Gorria Gipuzkoa); Marian Martínez (Sartu); Pilar Villamariz (Emankor Elkarte- Saio Programa); María Berlanga (Cáritas Bizkaia); Koldo Zorrilla (Peñascal Fundazioa); Gonzalo Silio (Kantabriako Unibertsitatea).



BILBAO • Indautxu kalea 9, behea

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN • Bizkaia Pasealekua 15-16, behea

VITORIA-GASTEIZ • Errege Atea 20, behea

Babeslea:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ASUNTOS SOCIALES





fundazioa
zerbikas

ikasketa eta zerbitzu solidarioa
aprendizaje y servicio solidario

